



ONDARE GARAIKIDEA

Laburpen exekutiboa



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Laburpen exekutiboa

Kulturaren Euskal Behatokiaren ondare garaikideari buruzko lehenengo txosten honek gaiari buruzko erronka eta definizio berriak aztertzen ditu ikuspuntu generiko batetik, debatea ardazten, sortzen eta eztabaidarako ideiak ematen lagunduz. Ondarearen kudeaketa globalean ardazten da, besteak beste museoei, artxiboei, ondare bibliografikoari eta abarri lotutako araudiak eta sektore-prozedurak aztertzerantz sartu gabe.

Txosten honek ondarearen kontzeptua eta kontzeptu hori osatzen duten elementuak etengabeko azterketan daudela hartzen du abiapuntutzat. Alderdi materialari eta memoriarekiko loturari eta balio historiko eta monumentalari lotutako ideia tradizionalaren aurrean, materialtasunetik eta antzinatasunetik bereizten duten ikuspegi berriak agertzen dira. Horrela, azken urteetan dimentsio garaikidea gehitu zaio ondarearen kontzeptuari berari zein ondarearen kudeaketari.

Kontzeptua bere konplexutasun osoan definitu eta aztertu ahal izateko garrantzitsua da, lehenik, ondarearen kontzeptua bere ikuspegi klasikoenetik ardaztea. Horrela, kontzeptuaren funtzioa da arlo artistikoan, historikoan edo kulturalean interes berezikotzat hartutako ondasunak babestea, zaintzea eta balioan jartzea da, eta, tradizionaliki, hori ondasun jakin batzuk zaintzeari lotuta egon da, hain zuzen ere, gure garaietaraino heldu izan zaizkigun eta irudikatzen duten balioarengatik onespenez berezia merezi duten ondasunak. Ildo horretan, honela definitzen du UNESCOk ondarea:

Iraganetik jaso genuen, gaur egun bizi dugun eta etorkizuneko belaunaldiei helaraziko diegun kultura-ondarea.

Gaur egun, kultura-ondare historikoaren zaintzari buruzko debatea –hau da, ondare tradizionalari buruzkoa– gaituta dago eta nazioartean orokortutako akordio bat dago babes-premiari buruz zein nahitaez zer ondasun zaindu behar diren ezartzeari buruz. Adostasun horretatik haratago, gaur egun egiten diren produkzioei eta ondasun horiek guztiak zaindu edo ez zaindu behar izateari buruzko debate berriak azaltzen ari dira. Debate horretan sortu da, hain zuzen ere, ondare garaikidearen kontzeptua, oraindik ere definitzeke dagoena.

Batez ere UNESCOk aldarrikatutako konbentzioek gidatu dute kontzeptu horren bilakaera-prozesua eta, gaur egun, modu zabalean onartuta dago ondarearen zatiketa **naturalaren** –hau da, paisaiari eta naturari lotutakoaren– eta **kulturaren** –hau da, gizakiaren ekintzara lotutakoaren– artean. Aldi berean, **kultura-ondarea materialaren** eta **immaterialaren** artean zatitu da, ondare ukigarriaren eta ukiezinen artean bereiziz.

Ondarearen eta haren zati diren elementuen kontzeptualizazioa funtsean aldatu egin da azken batean urteek aurrera egin ahala. Gizartearen bilakaerak, adierazpen artistiko berrien agerpenak eta digitalizazioak ekarri duen iraultzak azkenean erronka berriak dakartzate, kultura-ondarearen definizio mugatua eztabaidan jartzen duten erronka berriak, hain zuzen ere.

UNESCOk, Europar Batasunak, ICOMOSek eta antzeko nazioarteko erakundeek onartutako konbentzio, gutun, adierazpen edo gomendioetan egiaztatzen dira ondarearen kontzeptuan izandako aldaketak, eta bertan sortzen dira, halaber, adiera eta definizio berriak. Txostenaren bertsio zabalean eskainitako errebasoak ekarpen nagusiak eta nazioarteko konbentzioak aztertzen ditu, eta horrek kontzeptuaren bilakaera ikustea ahalbidetzen du, haien gaineko ikuspegi mugatuenetik begirada berri zabalagoetara.

Arau-errebaso honen bidez ikusi dezakeguna zera da, ondare-balioaren ideiak bilakaera nabarmena izan duela denborarekin eta, gero eta gehiago, materialtasunari eta antzinatasunari lotutako irizpideek eskusiboak izateari utzi diotela horrela kontuan hartuak izateko. Gaur egun, kultura-adierazpenei balioa emateko premiak azterketa sakon bat dakar, askoz ere inklusiboagoa, zeinak erronka berriei aurre egin beharko dien. Ondarearen kontzeptuak etengabeko bilakaera izan du XX. mendearen hasieratik gaur egun arte. Haatik, ondare garaikidearen definizio argi eta zabal onartutakorik ez izateak zera eragiten du, ondare hori oro har babestuko duten ekimenak burutzea gero eta zailagoa izatea.

Ondare garaikideak zenbait erronka berriri egin behar die aurre, ezinbestean zaintza-premia jakin batzuk eragiten dituztenak. Erronken artean nabarmentzekoa da kontzeptua sortze-fasean dagoela, eta kontzeptualizazio integral bat hartzeko premia.

SORTZE-FASEAN DAGOEN ONDAREA	
Ondare garaikidea definitzen duen alderdi garrantzitsuenetako bat sortze-fasean dagoela da, eta erronka jakin batzuekin lotzen da hori:	
Denborazkotasuna	Antzinatasunari eta historiari lotuta egon da tradizionalki ondarea, nahiz eta gero eta nabariagoa den berriki produktutako adierazpen artistiko eta kulturek ere babesa eta zaintza behar dutela, baita beren burua ezagutaraztea ere. Hori gorabehera, zailtasun garrantzitsu bat sortzen da, izan ere, denboran dagoen distantziak, antzinatasunak, erraztu egiten du deklaratu beharrekoaren ondare-balioari buruzko adostasun soziala. Garaikide eta moderno terminoen erabileraren artean nolabaiteko nahasketa badago ere, bereziki ondare arkitektonikoari dagokionez, XX. eta XXI. mendei atxiki zaie lan honetan garaikide terminoaren erabilera.
Memoria	Gaur egungo ondarea, ondare garaikidea, XX. eta XXI. mendean egindako produkzioekin lotzeak zera dakar sarritan, gaur egungo memoriaren zati izatea, eta gaur egungo komunitateak eta hari oso lotutakoak inplikatzeko. Memoria biziarekiko lotura hori ondare garaikidea gehien ezaugarritzen duen puntuetako bat bada ere, kudeaketa-zailtasunak eragin ditzake ondarezkotzat deklaratuak izan daitezkeen ondasun jakin batzuekin dagoen inplikazioa dela eta. Ildo horretan, kontuan hartu beharreko erronketako bat komunitateak zaintzan parte hartu dezala eragitea da, betiere iritzi tekniko eta adituak ahuldu gabe.
Dibertsitatea eta kantitatea	Ezohikoarekin eta monumentalarekin lotutako kontzeptuaren eredu elitistatik aldendu eta landa-eta hiri-mundua edo langile-klase eta klase ertainak barnean hartzen dituen kontzeptu baterako aldaketak, XX. mendearen eraikuntza-jarduera itzelarekin batera, ondarearen kudeaketaren bestelako ikuspegi bat inplikatzeko, askoz ere inklusiboagoa. Ohikora, egunerokora eta alderdi industrialera irekitzeko premia horrek erronka garrantzitsuak ditu, guztia zaintzearen ezintasunetik eratorritako erronkak.

SORTZE-FASEAN DAGOEN ONDAREA

Ondare garaikidea definitzen duen alderdi garrantzitsuenetako bat sortze-fasean dagoela da, eta erronka jakin batzuekin lotzen da hori:

Genero-begirada	Kontzeptua zabaltze horrek eguneroko bizitzaren zenbait alderdi ere kontuan hartzea dakar, ondarearen ikuspegi tradizionaletik begiratuta ezkatututa geratu ziren alderdiak.
Adostasun eta balio soziala	Askoz errazagoa da ezohikoa eta apartekoa den zerbaiten balioa identifikatzea haiekin batera bizi garen elementuekin egitea baino, eta, hori horrela, produkzio edo adierazpen kultural jakin bati emandako balio soziala irakurtzea ahalbidetzen duten irizpideak definitu behar dira, jokoan sartu daitezkeen irizpideen aniztasunari kasu eginez.


KONTZEPTUALIZAZIO INTEGRALA

Beste elementu bereizgarrietako bat da ondarearen kontzeptualizazio baterantz aurrera egiten ari garela, ez soilik kultura-ondarearen kontsiderazioa zabaltzeari dagokionez, baita babesarekin, zaintzarekin, bultzadarekin, zabalkundearekin eta gozamenarekin lotutako kudeaketari dagokionez ere. Honako puntu hauetan nabarmentzen da ondarearen kontsiderazio integrala

Ondare-ondasunean	Ondare-elementuaren ikuskera holistiko batek hartzen du garrantzia, non aintzat hartzen den ondasunarekin edo kultura-adierazpenarekin batera doan ingurunea.
Ondarearen kudeaketan	Ikusi daitekeenez, apustua gero eta handiagoa da bestelako gaiak ere kontuan hartuko dituen kudeaketa baten alde, hain zuzen ere, ondarearen kudeaketan inplikaturako gobernantza-mailekin hasi eta jasangarritasunarekin, integritatearekin, balioan jartzearekin edo arlo ekonomikoan dakartzan aukerekin lotutako gaiak.

Ondare garaikidea kontzeptu zabal, malgu eta dialektikoa da, eta amaitu ez den definizio-prozesu batean dago. XX. mendeko azken hamarkadek kultura-ondarerako kontzeptuzko hurbilketen azterketa eta berriztatze sakon bat izan dute ezaugarritzat, eta hiru funtsezko elementu nabarmendu dira: ondarearen definizio dinamikoa, ondareari buruzko begirada inklusiboa hartzea eta balorazio sozialeko irizpideak zabaltzea. Ondarearen ikuspegi integralerako joera gorabehera, ondarearen beraren definizioan zein kudeaketan, ondare arkitektonikoa, industrial, paisajistikoa edo immateriala izan dute gehienbat ardatz ondare garaikideari buruz egindako azterlanek.

Ondarearen bilakaeraren ondoriozko erronka berri horiek eta garaikidetasunaren eta gizartearen aurrerabidearen ondoriozko aldaketek babes-premia berriak sortzea ere badakarte, adibidez, honako kausa hauen ondorioz: kontzeptualizazio integral baterako aurrerabidea, adierazpen artistikoko modu berrien agerpena, digitalizazio-prozesuen edo ondare kantitate handi bat esku pribatuetan egotea.



Babes-neurri konkretu berriez gain, kudeaketa zabaldu egiten da garrantzia emanez zabalkundeari, jendeari jakinarazteari eta herritarren gozamenari. Ondareak gizartearekiko urrunekoa izateari utzi behar dio eta bere burua ezagutzera eman, komunitate inklusibo, koherente, tolerante, berritzaile eta erresistenteak egiten lagunduko duten balio eta ezagutzak eskuratzea indartuz.

Zaintzeko eta babes-premia horiek betetzeko, badira gaur egun ondare hori ongi zainduko dela legalki ziurtatzen duten babes-tresna eta babes-prozedurak. Ildo horretan, ondasun baten babesa ziurtatzeko lehenengo urratsetako bat onespena da, normalean egungo babes-premien multzo osoa hartzen ez duen prozedura bati lotuta dagoena.

Deklarazio-prozesuen zailtasuna gorabehera, ondasun horiek ongi deklaratzeko direnean ere, babes-tresna konkretuei buruzko espezifikaziorik ezak zaildu egiten du ondarea ongi zaintzea. Tresna eta erremintetako konkretzio falta hori nabariagoa da ondare garaikideenean (hala nola immaterialean, ingurunean, alderdi industrialean, paisaietan edo kultura-ibilbideetan, eta abar).

Egungo euskal legeriak ondasun bat kultura-intereseko ondasun deklaratzeko jarraitu beharreko prozedurak ezartzen ditu, eta desberdinak dira esleitutako babes-maila berezia, ertaina edo oinarrizkoa izatearen arabera. Dagozkion deklarazio-prozedurak ezartzeaz gain, ondare-ondasuneko tipologia bakoitzari aplikatu ahal zaizkion babes-erregimen guztiak ere zehazten dira.

KULTURA-INTERESEKO ONDASUN BAT DEKLARATZEKO PROZEDURA	
Babes berezi eta ertaineko kultura-ondasunak	Oinarrizko babeseko kultura-ondasunak
1. Deklarazio-espeditenteei hasiera ematea. Hasiera emateak babesa berehala aplikatzea dakar.	1. Ondasuna udaleko hirigintza-katalogoetan sartzearen ondorioz gertatu da deklarazioa.
2. Deklarazio-espeditenteak jendaurrean erakusgai jartzeko eta interesdunei entzuteko izapidea gainditu behar du.	2. Oinarrizko Babeseko Kultura Ondasunen erregistroan inskribatu behar da.
3. Babes bereziko edo ertaineko deklarazioa duten ondasunak erregistroan barne hartzen dira.	

BABES-ERREGIMENA		
Bateratua	Babes-mailen arabera	Tipologiaren arabera
Kultura-ondasuna babesteko erregimen erkidea	Babes bereziko ondasunentzako erregimen espezifikoa	Ondasun higiezinentzako erregimen espezifikoa
	Babes ertaineko ondasunentzako erregimen espezifikoa	Ondasun higigarrientzako erregimen espezifikoa
	Oinarrizko babeseko ondasunentzako erregimen espezifikoa	Ondasun immaterialentzako erregimen espezifikoa

Ondarea babestea ez da soilik zaintzea eta kalteak saihestea, baizik eta zaintzearekin batera, zabaltzea, ezagutzera ematea, haren erabilera eta gozamina sustatzea, eta abar. Ildo horretan, ondarea babesteko neurriek honako hauek ere hartu behar dituzte kontuan: kultura-balioaren onespentetik hasi eta zaintzea, zaharberritzea eta kanpora jakinaraztea.

Euskadin dagokion erregistroan jasota eta katalogatuta dago kultura- eta natura-ondarea. Erregistro honen azterketak ondasun garaikideen ezaugarri esanguratsuenetan sakontzea ahalbidetzen du, babesarekin eta tipologiarekin lotutako terminotan. Dena den, kultura-ondasunen erregistroa prozesu zail eta neketsua da, eta, sarritan, espediente bakar batek barne hartzen du babestu beharreko ondasunen ugartasuna. Integrazio hau eta ondare-elementuaren gaineko begirada bateratu hau funtsezkoa da ondarea ongi babesten dela bermatzeko, batzuetan zaildu egiten du hasiera emateko, erregistratzeko eta babesteko prozesua, eta oso zaila egiten du lurralde batean dagoen ondarea kuantifikatzea.

Txostenean euskal ondare garaikidearen azterketa bat dago, eta arretaz irakurri behar da ondarearen babesa kuantifikatzeko konplexutasuna dela eta. Ikuspuntu kuantitatibo batetik (erregistroa aztertuz) eta ikuspuntu kualitatibo batetik (azken 10 urteetan deklaraturako ondasunak aztertuz) egin da azterketa hau. Honako hau erakusten du azterketak oro har:

- Bizkaia da, aldearekin, kultura-ondasun gehien babestuak dituen lurralde historikoa, babes bereziko zein ertaineko kategorian.
- Gaur egun babestutako ondasun gehienak ondasun kalifikatuak edo babes berezikoak dira, eta ondoren inbentarioan jasotakoak edo babes ertainekoak.
- Ondasun arkitektoniko babestu gehienak izaera monumentaleko eraikinei lotuta egon badira ere, XX. mendeko ondasunen babesa oso modu esanguratsuan lotu da bizitegi-higiezinatiko tipologiekin, ondoren izaera industrial edo zibilekoak eta zerbitzuetakoak daudelarik.
- Babesik gabeko ondasun gehienak bizitegi-arlokoak edo industria-arlokoak dira.
- Industria-ondarea, bizitegi-arloko eta arlo zibil edo publikoko arkitektura, adierazpen immaterialak, kultura-ibilbideak, industria-paisaiak, eta abar, XX. mendearen amaierara arte edo XXI. mendearen hasierara arte onspen espliziturik eta ondare-baliorik izan ez zuten elementu eta tipologiak dira.
- Azken hamarkadan onetsitako ondarearen zatirik handiena paisaiaren tipologiaren (industria paisaiak nabarmenduz) edo industria-ondarearen tipologiaren barruan barne hartzen da.
- Ondasun babestuen tipologia argi eta garbi da garaikidetasunaren, ondarearen kontzeptuaren zabaltzearen eta orain arte modu oharkabeagoan adierazi izan denari balio soziala esleitzearen isla.

Ikusienez, ondare garaikidearen kudeaketak erronka partikularrak eta orain arte horrelako indarrez sortu izan ez diren premia espezifikoak planteatzen ditu. Testuinguru honetan, gaur egun dauden babes-tresnak sarritan ez dira nahikoak sortze-prozesuan dagoen ondare baten babesa garatzeko, eta xehetasun-maila handiagoa behar dute batez ere ondare ukiezinaren babesa gidatzeko. Egoera horren aurrean, elementu berritzaileen multzoa planteatzen da txostenean, eta elementu horiek etorkizuneko ekintza-lerroak inspiratu ditzakete ondare garaikidea kudeatzeko alorrean.

Lankidetzaren inbertitzaile pribatuekin ondarearen kudeaketan	Lankidetzaren publiko-privatua esparru guztietan gora datorren joera da, eta, zenbait kasutan, jarduketaren maila handiagoak lortzea ahalbidetzen du.
Ondarea benetan baliatzeko eta hedatzeko politiken definizioa	Ondarearekiko kontaktua eta ezagutza benetan baliatzen dela bermatzeko etengabeko hedatze-politikak aktibatu behar dira, eta informazio publikoko erremintak sortu eta martxan jarri. Hori interesgarria da ondarea herritar guztiei helarazteko zein babes-neurriei buruz informatzeko eta sentsibilizatzeko.
Adostasun soziala	Kultura-ondarearen esanahi garaikidearen inguruko adostasun soziala sustatzea ezinbestekoa da orientazio bat eskaintzeko ondare hori balioesteko irizpideekiko.
Hezkuntza eta kultura-ondarearen sozializazioa	Hezkuntza-sistema formaletik beretik planifikatu behar da eta garrantzitsua da balorazio sozial hori lortzeko.
Ondarearen kudeaketa adimenduna	Ondare garaikidearen kudeaketa berri hau ezagutza zientifiko eta teknikoaren etengabe hartu eta aztertzean oinarritu behar da, eta katalogoak eta inbentarioak aldi oro eguneratzean.
Sustapen ekonomikoa	Erreminta berriez eta ondare garaikidearen kudeaketa-premietarako egokiak diren politiken definizioaz haratago, ondarea, berez, sustapen ekonomikoko erreminta bat da gaur egun.

Hitz batean, txosten honek argia ekarri nahi izan du gaur egun ondare garaikidea osorik hartuta ulertzeko eta babesteko moduari buruzko debatean, kontzeptuaren bilakaera teorikoa azpimarratuz, erronka berriak eta babesteko premia berriak zehaztuz, eta esparru horretan etorkizuneko jarduketak egiteko inspirazio izan daitezkeen zenbait elementu bilduz.

Gaur egun, ondarearen kontzeptualizazioak bilakaera izan du eta ondarea elementu konposatu bezala ulertzen da orain, zaindua izateko ingurune hurbil hurrenaren babesa zein barrukoaren edo ondarea bera osatzen duten elementuen multzoaren babesa behar duena. Horrekin batera, ondarearen kudeaketak ere bilakaera izan du eta gero eta balio handiagoa du ondarearen babesarekin hasi eta ondarea zaintzeraino ondarearen beraren zabalkundea, komunikazioa, balioan jartzea eta termino ekonomikotan gauzatutako proiektzioa bere gain hartuko dituen kudeaketa integratuak.

Txosten honetan ikusi denez, ondare garaikidearen kudeaketak erronka berriei egin behar die aurre bere kontzeptualizazio propioari dagokionez –zeina zabaldu egin behar den eta orain arte bildu gabeko ondare-elementuak barnean hartu behar dituen– nahiz bere kudeaketari dagokionez, zeinak bere gunea zabaldu behar duen. Babes-tresnak batzuetan ez dira nahikoak eta beharrezkoa egiten da jardunbide egokiak aztertzea eta ezagutzea, babes-neurriak mugatzea, batez ere ondare immaterialarentzat, ondare-elementu balorazio-irizpideak zehaztea edo herritarrak kontzientziatzea, besteak beste.

